

UDALAREN OSOKO BILKURA

2009ko apirilaren 29ko ohiko bilkura

BERTARATU DIRENAK

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CUIEL jn.
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- M^o CARMEN URBIETA GONZALEZ and.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETIA jn.
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.
PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.
EB-B.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

KOLDO BIGURI jn.

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA

JAVIER BOLINAGA LEKUE jn.

Leioako udaletxean, bi mila eta bederatziko apirilaren hogeita bederatziko arratsaldeko zazpiak eta bost minutu direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2008ko ABENDUAREN 29ko ETA 2009ko MARTXOAREN 26ko OHIKO BILEREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bileren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren Osoko Bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak aho batez onetsi ditu 2009ko otsailaren 19ko eta 2009ko otsailaren 25eko ohiko bileretako aktak.

2.- 2010. URTERAKO JAIEGUNEN EGUTEGI OFIZIALA ETA HERRIKO JAIA ZEHAZTEA:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko apirilaren 7ko 156 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2009ko martxoaren 31n hartu zuen 49 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Martxoaren 17ko 65/09 Dekretuaren bitartez (58. EHAA, 2009-03-25ekoa), onetsi egin da Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2010. urteko jaiegunen egutegia ofiziala. 1. eta 2. artikuluetan ezarritakoaren arabera, lan-ondorioetarako, urteko igande guztiak eta ondoren aipatzen diren egunak ez dira egun balioduntzat joko:

- ✓ Urtarrilaren 1a, ostirala, Urteberri eguna.
- ✓ Urtarrilaren 6a, asteazkena, Errege eguna.
- ✓ Martxoaren 19a, ostirala, San Jose eguna.
- ✓ Apirilaren 1a, Ostegun Santua.
- ✓ Apirilaren 2a, Ostiral Santua.
- ✓ Apirilaren 5a, Pazko Astelehena.
- ✓ Maiatzaren 1a, larunbata, Langileen eguna.
- ✓ Urriaren 12a, asteartea, Pilarreko Amaren eguna.
- ✓ Azaroaren 1a, astelehena, Domu Santu eguna.
- ✓ Abenduaren 6a, astelehena, Espainiako Konstituzioaren eguna.
- ✓ Abenduaren 8a, asteazkena, Ama Birjina Sortzez Garbiaren eguna.
- ✓ Abenduaren 25a, larunbata, Natibitate eguna.

Gainera, 2.2. artikuluan adierazitakoaren arabera, lan-ondorioetarako, 2009. urtean, tokian tokiko jaietako bi egun ere jaiegun izango dira, hau da, ordaindu egingo dira eta ez dira errekuperatu beharko. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko lurralde ordezkariak zehaztuko dituzte egun horiek, udaletako osoko bilkurek proposatuta. Adierazi denez, hilabeteko epea izango dute udalek, dekretua argitaratu ondoko egunetik hasita, proposamena egiteko eta beren lurralde ordezkarietara bidaltzeko.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman du, ekainaren 24a (osteguna), San Juan eguna, herriko jaia izatea proposatzeko, uztailaren 31 (larunbata) alde batera utzita.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta Osoko Bilkuraren hurrengo bilerako gai-zerrendan sartuko da. **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du.**

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** 2009ko ekainaren 24a ezartzea 2010. urterako herriko jaia izateko, San Joan eguna delako. Erabaki hori Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Lurralde Ordezkaritzari bidaliko zaio, jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan.

3.- 2009-2010eko ENPLEGU-TAILERRA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko apirilaren 21eko 181 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Alkatetzaren 343/09 Dekretuaren berri eman da. Hona hemen hitzez hitz dioena:

DEKRETU ZK.: 343/09

Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enplegu Batzorde Bereziak 2009ko apirilaren 7an egindako bileran, besteak beste honako irizpena onetsi du:

18.- 2009-2010eko ENPLEGU-TAILERRAREN PROIEKTUA. 2010. urterako Enplegu Tailerraren proiektu berria aurkeztu da, Ondizko Dorretxea birgaitzeko (II. fasea).

2010. urterako Enplegu Tailerraren proiektu berria aurkeztu da, Ondizko Dorretxea birgaitzeko (II. fasea).

Proiektuaren daturik esanguratsuenak jarraian laburbildutakoak dira, nahiz eta agiria helbide elektronikoz bidaliko zela jasota utzi zen, arreta handiz aztertu ahal izateko.

ESPEZIALITATEAK ETA IKASLE-KOPURUA:

Espezialitatea	Kodea	Iraupena (hilak)	Parte hartu duen langile-kopurua
HARGINTZA		12	8
IGELTSEKOTZA -		12	8
HARGINTZA		12	8
ZURGINTZA			
GUZTIRA			24

EGINGO DEN OBRAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA

Birgaitzeko obrekin aurrera egitea, Aldundi honek emandako jarraibideen arabera; izan ere, katalogatutako ondasuna da eta ondoko eraikina jasoko da.

PRESTAKUNTZA-PLANA

Espezialitate bakoitzaren helburu orokorrak, gaitasun-unitateak eta prestakuntza-ibilbidea.

LANGILE-PARTAIDEEN PROFILA

Programa Getxoko EINeko bulegoan inskribatuta dauden 25 urtetik gorakoentzat da; horiek aukeratzeko, bulegoak lankidetzan jardungo du erakunde sustatzailearekin.

ENPLEGU-TAILERREKO LANTALDEA

Aurreko programetako lantalde bera mantendu da; honakoek osatzen dute:

- Zuzendaria
- Aparejadorea
- Administrari laguntzailea
- Prestakuntzarako eta gelako laguntzailea
- Hiru monitore, espezialitate bakoitzeko bat.

AURREKONTUA ETA FINANTZAKETA

GASTU GUZTIEN AURREKONTUA

KONTZEPTUA	1. FASEA	2. FASEA	GUZTIRA
- Soldata-kostua: Zuzendarien, irakasleen, administrari laguntzaileen eta aparejadorearen kontratazioa. (1)	91.226,49	91.226,49	182.452,98

- GSrako enpresa-kuota . Zuzendarien, irakasleen, administrari laguntzaileen eta aparejadorearen kontratazioa. (2)	29.635,51	29.635,51	59.271,02
GUZTIRA	120.862,00	120.862,00	241.724,00
- Langileen kontratazioa . Lansari eta soldatak (3) . GSrako enpresa-kuota (4)	158.760,00 5.473,44	158.760,00 5.473,44	317.520,00 10.946,88
LANGILE-KONTRATATUEN SOLDATAK ETA GIZ. SEG., GUZTIRA	164.233,44	164.233,44	328.466,88
- Funtzionamenduko eta kudeaketako gastuak Arropak eta ekipoa Tresnak, erremintak, mantentze-lana Bulegoko eta gelako materiala Energia elektrikoa, argia eta ura Garbiketa Telefonia Garraio-elementuak Bestelako gastuak (ikastaroak, dietak, bestelakoak)	6.100,00 10.350,00 2.000,00 5.000,00 7.000,00 2.060,00 1.500,00 9.000,00	6.100,00 10.350,00 2.000,00 5.000,00 7.000,00 2.060,00 1.500,00 9.000,00	12.200,00 20.700,00 4.000,00 10.000,00 14.000,00 4.120,00 3.000,00 18.000,00
GUZTIRA	43.010,00	43.010,00	86.020,00
PROIEKTUAREN KOSTUA, GUZTIRA	328.105,44	328.105,44	656.210,88

- (1) Aurreko programaren soldataren bidez kalkulatu da eta 2009ko igoera aplikatu zaio; 2010. urteko igoeraren arabera eguneratuko da.
- (2) 2009. urtean indarrean dauden soldatei aplikatutako portzentajeaz kalkulatu da.
- (3) 2009. urtean aplikatutako soldataz kalkulatu da.
- (4) EINEk erantsitako taula orientagarrien bidez gutxi gorabeherako kalkulua egin da.

KOSTUAK ETA GASTUAK

1. KOSTUAK

1.1 ENPLEGU-TAILERREKO LANGILE-EKIPOAREN KOSTUA

	I. FASEA		II. FASEA		GUZTIRA
ZUZENDARI 1 L. OSOA	Soldata Giz. Seg.	19.305,79 6.197,16	Soldata Giz. Seg.	305,79 6.197,16	38.611,58 □ 12.394,32 □
APAREJADORE 1, 23 ORDU	Soldata Gizarte Seg.	11.100,79 3.674,37	Soldata Gizarte Seg.	11.100,79 3.674,37	22.201,58 □ 7.348,74 □
PSIKOLOGO-LAGUNTZA EMATEKO MONITORE 1, 23 ORDU	Soldata Giz. Seg.	9.256,47 3.063,88	Soldata Giz. Seg.	9.256,47 3.063,88	18.512,94 □ 6.127,76 □
OFIZIOZKO 3 MONITORE, LANALDI OSOA	Soldata Giz. Seg.	38.672,58 12.562,14	Soldata Giz. Seg.	38.672,58 12.562,14	77.345,16 □ 25.124,28 □
ADMINISTRARI LAG. 1, LANALDI OSOA	Soldata Gizarte Seg.	12.890,86 4.137,96	Soldata Gizarte Seg.	12.890,86 4.137,96	25.781,72 □ 8.275,92 □
GUZTIRA		120.862,00 €		120.862,00 €	241.724,00 €

OHARRA: Soldatak eta Gizarte Segurantzaren 2009. urteko zenbatekoen arabera kalkulatu dira, soldaten igoseraren gaineko daturik eta 2010. urtean Gizarte Segurantzaren aplikatuko den kostu errealearen gaineko daturik ez izateagatik.

ENPLEGU-TAILERREKO LANGILEEN KOSTU OSOA	241.724,00 €
--	---------------------

1.2 KONTRATATUTAKO LANGILEEN KOSTUA:

KONTRATATUTAKO LANGILEAK	1. FASEA	2. FASEA	GUZTIRA
Soldatak	158.760,00	158.760,00	317.520,00
Gizarte Segurantzako enpresa-kotizazioa	5.473,44	5.473,44	10.946,88
GUZTIRA	164.233,44	164.233,44	328.466,88

KONTRATUTAKO LANGILEEN KOSTU OSOA	328.466,88 €
--	---------------------

OHARRA: 2009. urteko soldaten arabera kalkulatu dira, eta 2010. urterako onesten denaren arabera eguneratuko dira. Gizarte Segurantzaren EInek emandako taula orientagarrien arabera kalkulatu da.

2. FUNTZIONAMENDUKO GASTUAK

FUNTZIONAMENDUKO ETA KUDEAKETAKO GASTUAK	86.020,00 €
---	--------------------

PROIEKTUAREN KOSTU OSOA	656.210,88 €
--------------------------------	---------------------

3. EINen FINANTZAKETA

3.1 EINen KONTRATATUTAKO LANGILEENTZAKO SOLDATAREN DIRU-LAGUNTZA.

I. ETA II. FASEAK

KALKULUA:

1.- 982,80 hileko soldata x 24 ikasle x 14 paga = 330.220,80

2.-38,01 Giz. Seg. hileko soldata x 24 ikasle x 12 kuota = 10.946,88

LANGILE-KONTRATATUEN SOLDATAREN DIRU-LAGUNTZA	341.167,68 €
--	---------------------

3.2 EINen DIRU-LAGUNTZA, PRESTAKUNTZAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO GASTUETARAKO

FASEA	AURREIKUSITAKO EGUNAK	IKASLE KP.	A MODUL. (2)	B MODUL. (2)	ORDUAK (3)	GUZTIRA €
1.	2009ko abendua	24	3,17	0,88	960	93.312,00 €
2.	2010eko ekaina	24	3,17	0,88	960	93.312,00 €
A + B MODULUETAKO DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA						186.624,00€

*Kalkulatzeko modua: (24 * 3,17*960) + (24*0,88*960)

EINen DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA	527.791,68 €
-------------------------------------	---------------------

PROIEKTUAREN KOSTUA OSOA	656.210,88 □
EINen EKARPENA	527.791,68 □
ERAKUNDE SUSTATZAILEAREN EKARPENA	128.419,20 €

Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enpleguko Batzorde Bereziak Ondizko Dorretxea birgaitzeko (II. fasea) Enplegu Tailerraren proiektua onestearen aldeko irizpena eman du, bai eta 656.210,88 euroko aurrekontuaren aldeko irizpena ere, aurkeztutako proiektuaren alderdiren bat alda badaiteke ere.

Honen bidez, ondorioz, aurretik azaldutakoaren arabera, **DEKRETUA EMAN** dut.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA eta **ALKATETZA-UDALBURUTZA** arestian aipatutako dekretuaren jakinaren gainean geratu dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** 2009-2010 Enplegu Tailerraren proiektua onestea, Ekonomi Sustapen, Prestakuntza eta Enpleguko Batzorde Bereziak emandako irizpenaren arabera; Alkatetza-Udalburutza ahaldundu da EINi dagokion diru-laguntza eskatzeko, aurretik aipatutako zenbatekoa, hain zuzen ere.

4.- UDAL DEMOKRAZIAREN XXX. URTEURRENA DELA ETA EUDELen ADIERAZPEN INSTITUZIONALA. Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko apirilaren 28ko 186 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2009ko apirilaren 21ean hartu zuen 58 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak epigrafeak adierazitako adierazpen instituzionala bidali du (sarrera-zenbakia.: 2540/09), eta Batzorde Betearazleak hura onetsi du 2009ko martxoaren 18an. Horrenbestez, udalak onets dezan proposatu nahi da.

Honakoa da testua:

“Udal demokratiaren XXX. urteurrena dela eta EUDELen adierazpen instituzionala

Orain dela hogeita hamar urte aro berri bat hasi zen. 1979ko apirilaren 3an lehenengo udal hauteskunde demokratikoak ospatu ziren, tesuinguru politiko berri baten barruan. Alde batetik, demokrazia suspertu zen, eta gainera, inflexio-puntu bat izan zen gure Udalen antolakuntzan, politikoki eta juridikoki.

Hogeita hamar urte pasa dira dagoeneko. Denbora horretan aldaketa politiko, sozial, ekonomiko eta teknologiko garrantzitsuak bizi izan ditugu, eta horietara egokitu gara. Gure arteko desberdintasunak gorabehera, ilusio bateratuak eduki ditugu. Ilusio horiekin, garai berri hori inauguratu zuten boluntarioak gaur egun ezagutzen ditugun Udalak eraikitzen hasi ziren.

Ibilbide hori hasi zutenei omenaldia egiteko garaia da. Gure Alkate eta Zinegotziei beraien lana, ahalegina eta sakrifizioa eskertu behar diegu, Udal demokratikoen garapen eta sendotzea ekarri dutelako eta erakundea herritarrengana hurbildu dutelako. Horiei guztiei esker, gure Udalak oso baloratuta daude eta azken urteetan asko eboluzionatu dute, herritarren bizikalitatea hobetzeko. Beraien lanari esker, tokiko

politikan boluntario gisa lan egin dutenen indarrari esker, erronka handiak gainditzeko gai izan gara eta indarberrituta irten gara beti.

Tokiko demokraziak hogeita hamar urte bete ditu. Eta hiru hamarkada horietako ibilbideak indarra eman behar digu, are indar eta konfiantza gehiagoz, aro berri honen erronkak gure gain hartzeko, baita 1979tik arrastaka dakartzagun horiek ere. Horregatik guztiagatik, EUDELen, data hori gogoratu nahi dugu, puntu hauetan oinarrituz:

- Bakea. Gure udalerrietan bizitzaren eta lanaren kontrako mehatxua den terrorismoa erauztea da gure helburu nagusia. Horregatik, terrorismoaren mehatxupearan lan egiten duten alkate eta zinegotziak omendu nahi ditugu, baita horregatik bizitza galdu dutenak ere.

- Tokiko autonomia, subsidiaritatea eta finantza-nahikotasuna. Helburu horiek, era berean, hogeita hamar urte bete dituzte. Herrialdearen arkitektura instituzionalean Udalerriak integratzea, eta Udalerrien eskumen eta gaitasun horien titulartasuna aitortu eta ezartzea, gizartetik hain gertu egoteagatik. Hori da gure etengabeko erronka. Udalerrien Legea onartzea lan horretan erabakiorra izango da.

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna. Berdintasun arloko politikak martxan jartzea da emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde aurrera egiteko modu bakarra. Erakundeek arlo horretan hartuko duten konpromisoarekin soilik, XXI. Mendeko arazo sozial nagusietako bat gainditzea lortuko dugu, emakumeen aurkako indarkeria.

- Berrikuntza. Gure herritarrenganako zerbitzua hobetzea da udalen esentzia. Aro digitalean gaude, eta zerbitzu aurreratua eskaini behar dugu, informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez, gardentasuna eta parte-hartzea bultzatu eta herritar guztientzako zerbitzu bateratu baten alde egin behar dugu, bizi diren lekuan bizi direla ere.

- Gobernantza. Udalerriak gero eta egoera konplikatuagoetara egokitu behar dira. Horretarako, beharrezkoa da gobernatzeko moduan eragile, mota eta maila askodun gobernu erlazionalaren ereduak sartzea.

- Interkulturalitatea eta Gizarterartzea. Berdintasunaren aldeko borrokan, halaber, herritar guztien eskubideen alde egin behar dugu, diren lekukoak direla ere, eta errespetuan elkarbizitzeko eta elkarreragiteko modua bilatu behar dugu.

- Europa eraikitzea. Lotura politiko, sozial eta kultural horren partaide gara, eta tokiko gobernuetan Europako herritarren alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, elkartasuna eta eraginkortasuna nagusi diren eremu batean.

- Erakundeen arteko lankidetzak. Pieza garrantzitsua da zerbitzu publikoen kudeaketa eta eraginkortasuna, beraz, gure herrialdea gainerako erakundeekin batera eraikitzen parte hartu nahi dugu. Lankidetzak hori beharrezkoa dela uste dugu, planteatutako proposamen guztiak lortzeko, sare horretan eman beharreko nahitaezko urrats bezala.

- Krisi ekonomikoa gainditzea. Une honetan hori da lehentasuna. Garai honetako esperentziaz eta ezagutzaz baliatu behar dugu, eta hori herritarrekin zuzenean elkarbizitzeak ematen digu. Horiek dira egoera horretatik indarberrituta ateratzeko gakoak.

- Aitortza. Hogeita hamargarren urtebetetze honetan, gure egitekoa da udalerririk guztietan lana, ahalegina eta sakrifizioa inbertitzen duten Alkate eta Zinegotzi guztiak omentzea. Kasu gehinetan, bokazio hutsagatik eta herriarekiko maitasunagatik, ordainsaririk jaso gabe. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu udal mailako politikaren boluntario guztiei.

Horregatik guztiagatik, Euskal Udalerrien Elkarteak, EUDELeK, aitorten hau onartu eta Udal guztiei gonbidapena egin die, egoki ikusten dituzten akordioen bidez, horrekin bat egin dezaten.”

“Declaración institucional de EUDEL con motivo del XXX aniversario

de democracia municipal

Hace treinta años comenzaba un nuevo tiempo. El 3 de abril de 1979 se celebraron las primeras elecciones municipales democráticas en un nuevo marco político que supuso, por un lado, la recuperación de la democracia, y que marcaba, además, un punto de inflexión en la organización de nuestros Ayuntamientos, en su concepción política y jurídica.

Han transcurrido ya treinta años. Durante este tiempo hemos vivido cambios políticos, sociales, económicos y tecnológicos de gran envergadura y nos hemos adaptado a ellos. Desde nuestras diferencias, hemos sabido mantener las ilusiones que compartíamos. Aquéllas con las que las y los

voluntarios de la política municipal que inauguraban este nuevo tiempo pusieron las primeras piedras de lo que hoy son nuestros Ayuntamientos.

Es tiempo de rendir homenaje a quienes iniciaron este recorrido. Debemos agradecer a nuestros Alcaldes, Alcaldesas, Concejales y Concejalas su trabajo, esfuerzo y sacrificio, que han hecho posible la consolidación y desarrollo de los Ayuntamientos democráticos y contribuyendo así a la transformación de la institución más cercana a la ciudadanía. Gracias a ellas y a ellos, nuestros Ayuntamientos son hoy la institución mejor valorada y la que más ha evolucionado en los últimos años en aras a mejorar la calidad de vida de nuestra ciudadanía. Gracias a su labor, a la fuerza de quienes han formado parte del voluntariado de la política local, hemos sido capaces de superar grandes retos y salir fortalecidos de todos ellos.

Cumplimos treinta años de democracia local. Y el recorrido de estas tres décadas debe darnos el impulso necesario para asumir, con más fuerza y confianza si cabe, los desafíos de este nuevo tiempo, así como aquellos que arrastramos desde 1979. Por todo ello, desde EUDEL queremos conmemorar aquella fecha reafirmandonos en los siguientes puntos programáticos:

- *La paz.* La erradicación del terrorismo que desde hace más de treinta años amenaza la vida y trabajo en nuestros municipios es el principal logro que debemos perseguir. Queremos, por ello, rendir un especial reconocimiento a los alcaldes y alcaldesas concejales y concejales que realizan su labor bajo la amenaza terrorista, así como a aquellos que han perdido la vida por ello.

- *Autonomía local, subsidiariedad y suficiencia financiera.* Son objetivos que cumplen, igualmente, treinta años. La integración de los Municipios en la arquitectura institucional del país, así como el reconocimiento y establecimiento de la titularidad de aquellas competencias y facultades que los Municipios, por su cercanía a la sociedad, se hallen en mejor disposición para ejercer, constituyen nuestro reto permanente. Y la aprobación de una Ley Municipal será decisiva en la culminación de esta tarea.

- *La igualdad de hombres y mujeres.* La puesta en marcha de políticas de igualdad es la única vía de avanzar en pro de la igualdad entre hombres y mujeres. Sólo con el compromiso del conjunto de las instituciones en este ámbito será posible superar uno de los principales problemas sociales, como lo es la violencia contra las mujeres, en pleno siglo XXI.

- *La innovación.* La mejora en el servicio a nuestra ciudadanía constituye la esencia del municipalismo. En la era digital debemos lograr un servicio actual avanzando en el uso de las tecnologías de la información y de la comunicación, impulsar la participación y la transparencia y trabajar por un igual servicio para todos los ciudadanos y ciudadanas, residan donde residan.

- *La Gobernanza.* En el permanente proceso de adaptación de los Municipios a contextos cada vez más complejos es necesario vislumbrar formas de gobernar que incluyan modelos de gobierno relacional multiagente, multitypo y multinivel.

- *Inclusión e Interculturalidad.* En la lucha por la igualdad debemos, así mismo, velar por la garantía del ejercicio de los derechos de ciudadanía de todos los vecinos y vecinas, independientemente de su lugar de origen y buscar la convivencia e interacción ciudadana de una forma horizontal respetuosa y sinérgica.

- *Construcción europea.* Somos copartícipes de esa unión política, social y cultural y desde los gobiernos locales nos comprometemos a trabajar en pro de la ciudadanía europea compartiendo un espacio en el que prime la solidaridad y la eficacia.

- *Colaboración interinstitucional.* Constituye una pieza clave en la gestión y en la eficacia de los servicios públicos, por lo que reafirmamos nuestro deseo de participar en la construcción de nuestro país en colaboración con el resto de niveles institucionales, entendiendo que se trata de una cooperación esencial para la consecución de cada uno de los propósitos planteados, considerándose al municipio como eslabón indispensable en ese entramado.

- *La superación de la crisis económica.* Es la aspiración central del momento. Debemos servirnos de la experiencia de este tiempo y del conocimiento que sólo otorga la convivencia directa con la ciudadanía. Ésas son nuestras claves para salvar esta situación y salir fortalecidos de la misma.

- *El reconocimiento.* En este treinta cumpleaños es nuestro deber rendir homenaje a todos los/as Alcaldes/as y Concejales/as que, cada día, en cada municipio, vuelcan horas de trabajo, esfuerzo y sacrificio. En la gran mayoría de los casos, por pura vocación y amor a su pueblo, sin retribución económica alguna. Queremos hacer hoy público nuestro agradecimiento a todos/as y cada uno/a de los voluntarios/as de la política municipal.

Por todo ello, la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL, aprueba la presente declaración e invita a todos los Ayuntamientos a que, mediante los acuerdos que consideren oportunos, se adhieran a la misma.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egokitzat jo du adierazpen hau osoko bilkuraren hurrengo bilerara eramatea.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** Udal demokraziaren XXX. urteurrena dela eta EUDEL-en adierazpen instituzionala onestea, aurretik aipatutako testuak adierazitakoaren arabera.

5.- HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN TXOSTENA, 2008-10-30ean ONETSITAKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN GAINEKOA: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko apirilaren 28ko 187 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2009ko apirilaren 21ean hartu zuen 59 zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

2008ko urriaren 30ean udalaren Lanpostu Zerrenda berria onetsi ondoren, eta Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak eta Euskal Funtzio Publikoaren gaineko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.5. artikulua xedatutakoari jarraiki, udalak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidali zion aipatutako Lanpostuen Zerrenda berria, beharrezko txostena eman zezan.

Hori jaso ondoren, gaia berriro ere Udalaren Osoko Bilkuran aztertu beharko da.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egokitzat jo du Udalaren Osoko Bilkuraren hurrengo bilerara loteslea ez den txosten hau eramatea, Lanpostuen Zerrenda behin betiko onesteko eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko, hala badagokio.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkura Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emandako txostenaren jakinaren gainean geratu da, eta erabaki du 2008ko urriaren 30ean onetsitako Lanpostuen Zerrendaren gainean inolako aldaketarik ez ezartzea. Erabaki hori **gehiengoaren** aldeko botoaz hartu da: aldeko hamazortzi boto (EAJ-PNVko hamar ordezkariak, EB-Berdeak taldeko bi ordezkariak eta PSE-EEren sei ordezkariak) eta hiru abstentzio (PPko zinegotzienak).

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

3.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2009-03-21etik 2009-04-22ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatezak emandako dekretuen kopiak azter ditzaten.

Udalaren Osoko Bilkura jakinaren gainean geratu eta ados azaldu da. PPko **Xabier Olabarrieta Arnaiz** jaunak hitza hartu eta esan du ez duela dekretuen gaineko galderarik egingo, baizik eta horiek kontsultatzeko ezarritako prozeduragatiko asetazuna adierazi nahi duela; izan ere, helbide elektronikoz bidali dira, eta, horrela, zinegotziek ez dute udalera horiek kontsultazera joan behar izan. Berak eta Udalbatzak administrazioko langileei jarduteko modu hori eskertu diete.

7.- PRESAZKO MOZIOAK:

LEHENENGO MOZIOA:

URTE ANITZEKO GASTUAREN ONESPENA, 2009, 2010, 2011 ETA 2012KO AURREKONTUEN PENTZURAKOA, LOREZAINZA-ZERBITZURAKO IBILGAILU BAT ESKURATZEA FINANTZATZEKO: Tokiko Gobernu Batzarraren 2009ko apirilaren 21eko 172 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio Udalaren Osoko Bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2009ko apirilaren 7an hartu zuen 50. irizpenak honakoa dio:

Udal aparejadoreak lorezaintza-zerbitzurako ibilgailu bat *renting*aren bidez eskuratzeko aurkeztu diren bi eskaintzak aztertu dituela adierazi du; halaber, eskaintako kalitatea, prezioa eta abantailak ere aztertu dira. Horrenbestez, egokitzat jo da Land Rover markako eta Defender 110-SWE modeloko ibilgailuaren *renting* sistemaren bidezko alokairua kontratatzea.

1. Hileko kuota917,56 □
2. Kontratuaren iraupena48 hilabete
3. Kontuan hartutako Kilometroak 60.000 Km

Aztertu da udal kontu-hartzailearen txostena; horren bidez, alokairuaren finantzaketa proposatu du, konpromiso-kredituaren bidez edo "Lorezaintza, *renting* sistemaren bidezko ibilgailuaren gastuak" 00700/43250/203.00.00 gastuaren aurrekontu-partidaren urte anitzeko gastuaren bidez. Hona hemen xehetasunak:

2009. urtea
8 hilabete x 917,56 € = 7.340,48 € / urtean
2010. urtea
12 hilabete x 917,56 € = 11.010,72 € / urtean
2011. urtea
12 hilabete x 917,56 € = 11.010,72 € / urtean
2012. urtea
4 hilabete x 917,56 € = 3.670,24 € / urtean

Gastu hori onestea osoko bilkuraren eskumenekoa da, baina nahitaezkoak dira Kontu-hartzaitzaren txostena eta Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpena. Hori guztia kontuan hartuta eta hasieran onetsi ondoren, jendaurrean azaldu behar da 15 eguneko epean, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespena behin betiko dela ulertuko da, Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauari, martxoaren 4ko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuari eta apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuari jarraiki, bai eta Aurrekontua Betearazteko Foru Arauan ezarritakoari ere.

Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Aldeko irizpena emango zaio urte anitzeko gastuari buruzko espedienteari, lorezaintza-zerbitzurako ibilgailu bat *renting* sistemaren bitartez eskuratzeko, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontuen pentzura.
2. Berau onesteari buruzko puntua Udalaren Osoko Bilkurak egingo duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da 15 eguneko epean eta, horretarako, horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkezten ez bada, berori behin betiko onetsizat hartuko da; hori guztia, Toki Erakundeek Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan, Toki Ogasunen testu bategina arautu duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan eta berau garatu duen apirilaren 29ko 500/1990 Errege Dekretuan aurreikusitakoa aintzat hartuta.

TOKIKO GOBERNU BATZARRA aipatutako proposamenaren alde agertu da eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK** berau onesteko **dekretua eman du**.

PREMAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundeek Antolaketa-aren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da. Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai horren **premia onestea** erabaki du, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** onetsi egingo dela urte anitzeko gastua, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko aurrekontuen pentzurakoa, lorezaintza-zerbitzurako ibilgailu bat eskuratzea finantzatzeko, Ogasun, Ondare eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak emandako irizpenean adierazten den bezala.

BIGARREN MOZIOA

UDAL TALDE POLITIKOEN MOZIOA, VICRILA ENPRESAREN EGOERARI BURUZKOA **MOCION**

Ante los delicados momentos que, como consecuencia de la situación de crisis económica mundial, está viviendo la empresa VICRILA, ubicada en el leioaztarra barrio de Lamiako, este Ayuntamiento Pleno desea hacer llegar a todo el personal de la empresa su más firme apoyo así como su sincero deseo de que la actual situación coyuntural sea superada con éxito lo más pronto posible.

Las sucesivas corporaciones municipales de Leioa se han caracterizado por un decidido apoyo a la presencia de actividades industriales en nuestro municipio. Por ello, confiamos en que la empresa, así como todas las personas vinculadas a la misma sigan contribuyendo por muchos años al común crecimiento y prosperidad de nuestra comunidad y sus vecinos y vecinas, como así lo han venido haciendo desde su implantación y desarrollo en Leioa hace ya más de un siglo.

Finalmente, queremos trasladar al personal de la empresa nuestra voluntad y disposición a coadyuvar, en la medida de nuestras posibilidades, a superar el momento presente y encarar en mejores condiciones el futuro industrial de la empresa.

MOZIOA

Munduko krisi ekonomikoagatik, Leioako Lamiako auzoan dagoen VICRILA enpresa pairatzen ari den egoera delikatu dela-eta, Udal Bilkurak enpresako langileei elkartasunik zintzoena helarazi nahi die. Egoera hau ahalik eta lasterren arrakastaz gainditzea opa die ere bai.

Leioako udalbatzek beti sustatu dute industria aktibitatea gure udalerrian, eta hori izan du ezaugarri. Horregatik, enpresa eta horri lotuta dauden pertsona guztiak gure komunitate eta bizilagunen hazkundean eta oparotasunean denbora luzez laguntzen jarrai dezatela espero dugu. Horrela egin dutelako Leioan lanean hasi zirenetik, duela mende bat baino gehiago.

Azkenik, enpresako langileei gaurko egoera gainditzeko eta enpresaren industria-etorkizunari baldintza hobeetan begiratzeko gure borondatea eta laguntzeko jarrera helarazi nahi dizkiegu, ahal dugun heinean bederen.

PREMIAZKO MOZIOAREN BOZKETA

Azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 91.4 artikuluan xedatutakoa oinarritzat hartuta, mozioaren premiari buruzko bozketa egin da.

Horrenbestez, Udalaren Osoko Bilkurak gai horren **premia onestea** erabaki du, eta jarraian gai horri buruzko eztabaida eta bozketa egin da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak **aho batez erabaki du** udal talde politikoen mozioa onestea, Vicrila enpresaren egoerari buruzkoa.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Atal honetan ez da eskaera ez galderarik egin.

Eta arratsaldeko zazpiak eta laurden direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,